



## El Alcalde de este Ayuntamiento hace saber: Udal honetako Alkateak jakinarazten du:

### EUSKARA IKASTAROETARAKO DIRULAGUTZA DEIALDIA

Udal honek, 2010/2011ko ikasturtean zehar euskara ikasteko dirulaguntzak ematen ditu, baita udako ikastaroetarako ere, eta baldintza hauek bete dituzten guztiek hauei helduko diezaizkete:

### Onuradunak

Dirulaguntza horien onuraduna izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- 1) **16 urte baino gehiago izatea.** 16 urteak 2010/2011 ikasturtean zehar betetzen baldin badira, dirulaguntza soilik jasoko da data horretatik aurrera dagokion aldiari.
- 2) Ikasturtea hasi baino **urte bat lehenago**, baita ikasturtearen iraupena ematen den bitartean ere, Iruña Okako Udalerrian **errolatuta** egon behar da.
- 3) **HABEK** (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak) aintzatetsitako **euskara ikasteko guneren** batean **matrikulatuta** egotea.
- 4) Gutxienez, ikasturteko **eskola orduetako %80ko asistentzia** betetzea, baita egiten diren azterketak gainditzea ere.
- 5) Hautatutako ikastaroa **HABEK** homologatua izan behar da.
- 6) Ofiziala den azterketa bat gainditu egin dela ez bada egiaztatzen, interneten bidez egindako ikastaroak ez dira diruz lagungarriak izango.

### Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- 1) Eskaera orria
- 2) 2010eko urriaren eta 2011ko ekainaren artean emandako ikastaroen ezaugarriak, baita udan zehar emandako ikastaroenak ere, azaltzen dituen ikasteko zentroaren egiaztagiria:
  - a Matrikularen zenbatekoa
  - b. Ikastaroaren hasiera eta amaiera datak
  - c Ordu kopurua astean
  - d Asistentziaren ehunekoak
  - e Maila
- 3) Bankuan Matrikularako egindako ordainketa ziurtagiriaren kopia. Epeka ordaintzen bada, ordainketa guztien kopiak entregatu behar dira.
- 4) Eskatzailearen NANaren kopia.

### Eskaeren aurkezpena

Eskaerak Iruña Okako Udaleko bulegoetan eskuratu daitezkekeen inprimaien bidez egingo dira. Eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira.

### Entregatzeko epea

**Iruña Okako Udaleko ohal-taulan argitaratzen denetik, 2011ko urriaren 20ra arte.**

AYUNTAMIENTO DE IRUÑA DE OCA ALAVA	IRUÑA OKAKO UDALA ALAVA
14 SET. 2011	
ENTRADA / SARRERA	SALIDA / IRTEERA
Núm./Zkia.	Núm. / Zkia.

ALKATE- PRESIDENTEA  
José Javier Martínez Jauna

